# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ERALDAKETA DIGITALEKO PLANA 2021-2025

Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua

2021 urria

# SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2021-2025 epealdirako erakunde mailan eraldaketa digitala bultzatzeko plan estrategikoa garatu du. Eraldaketak gaur egun duen berebiziko garrantzia dela eta, digitalizazioaren arlo ezberdinetan hurrengo urteetarako bideorria zehaztu nahi izan dugu, erakunde osoan era sistematiko eta koordinatuan aurrera egiteko.

Eraldaketa digitalaren xedea herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuak hobetzea eta barneko prozesuen eraginkortasuna areagotzea izango dira. Horretarako, teknologia berriek eskeintzen dituzten aukerataz baliatuko gara eta erakundearen barne funtzionamendua hobetzeko era berritzaileak ezarriko ditugu.

# HIRU ERRONKA

Eraldaketa digitalaren bidean hiru erronka nagusi identifikatu ditugu:

1) Eraldaketa digitala era estrategikoan kudeatzea.

2) Erakundean digitalizazioaren eta teknologia berrien aldeko kultura sustatzea.

3) Herritarrei zerbitzuak hobetzeko eta barne eraginkortasuna areagotzeko lagunduko diguten teknologia hoberenak aukeratu eta ezartzea.

# HELBURU ESTRATEGIKOAK

Erronka bakoitzarentzat helburu estrategiko nagusiak definitu ditugu:

**1. ERRONKA: ESTRATEGIA BATERATU BATEN ERAKETA ETA DIGITALIZAZIOA MAILA ESTRATEGIKOAN GARATZEA**

**1.1 HELBURUA:**

Eraldaketa Digitala erakundean estrategiko bihurtu. Arlo digitalean helburu eta estrategia globala martxan jartzea.

**1.2 HELBURUA:**

Estrategia digital globala garatu, Departamentu bakoitzaren berezitasun eta behar zehatzetara egokituz. Departamentuen arteko alineamendua eta oreka bilatu.

**1.3 HELBURUA:**

Herritarrekiko zerbitzua hobetzea eta herritarretan zentraturiko estrategia garatzea.

# HELBURU ESTRATEGIKOAK

**2. ERRONKA: PERTSONEN GARAPENA ETA KULTURA TEKNOLOGIKOAREN GARAPENA**

**2.1 HELBURUA:**

Eraldaketa Digitalari aurre egiteko pertsonak eta lantaldea izan eta hau planifikatu.

**2.2 HELBURUA:**

Pertsonen eta Herritarren trebakuntza eta sentsibilizazioa. Eraldaketa Teknologikoari aurre egiteko lurraldea sortu.

**2.3 HELBURUA:**

Elkarlanerako kultura garatu erakundean teknologiaren erabilera barneratzeko eta aprobetxatzeko.

# HELBURU ESTRATEGIKOAK

**3. ERRONKA: TEKNOLOGIA OPTIMOEN AUKERAKETA ETA EZARPENA, PROZESUEN OPTIMIZAZIO ETA HERRITARRENTZAKO ZERBITZUEN HOBEKUNTZARAKO**

**3.1 HELBURUA:**

Foru Aldundiko prozesuetan ahalmen teknologikoa handitu.

**3.2 HELBURUA:**

Balio erantsiko eta herritarrengan zentratutako zerbitzuak eskaini.

**3.3 HELBURUA:**

Barne prozesuak digitalizatu eta optimizatu teknologiari esker.

# LERRO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

Erronka eta helburu bakoitzeko lan lerro estrategikoak eta ekintzak definitu ditugu, ekintza planean jaso ditugunak:

# LERRO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

| ERRONKA | HELBURU ESTRATEGIKOA | LANLERRO ESTRATEGIKOA | EKINTZAK |
|---|---|---|---|
| **1. ERRONKA: ESTRATEGIA BATERATU BATEN ERAKETA ETA DIGITALIZAZIOA MAILA ESTRATEGIKOAN GARATZEA** | 1. **Helburua**<br>Eraldaketa Digitala erakundean estrategikoa bihurtu. Arlo digitalean helburu eta estrategia globala martxan jartzea. | **1.1.1. Lanlerroa**<br>**Estrategia globala** martxan jarri, ikuspuntu estrategiko batekin. | Erakunde mailako batzorde bat sortu.<br>Segimendurako mekanismoak: Aginte koadroa.<br>Jarraipen sistematika definitu.<br>Barne eta kanpo komunikazioa.<br>DAB bileretan informatu. |
| | 2. **Helburua**<br>Estrategia digital globala garatu, Departamentu bakoitzaren berezitasun eta behar zehatzetara egokituz. Departamentuen arteko alineamendua eta oreka bilatu. | **1.2.1. Lanlerroa**<br>**Elkarlanaren kudeaketa. Estrategia Departamentala eta estrategia Korporatiboa uztartzea. Departamentu desberdinen arteko alineamendua.** | Eraldaketa digitala bultzatzeko lantalde interdepartamentala sortu.<br>Helburuak definitu urtero: Departamentuka Urteko Plana eratu Digitalizazio alorrean.<br>Identifikatu Estrategia honetan eta Departamentu bakoitzean dauden proiektuak.<br>Segimendua Departamentu bakoitzeko: proiektuak eta indikadoreak definitu eta jarraipena egin. (Indikadore batzuk plan orokorrekoak, beste batzuk Departamentuka). |
| | | **1.2.2. Lanlerroa**<br>**Datuen Gobernantzarako Estrategia definitu.** | Datuen Bulegoa sortu.<br>Datuen Gobernantza arautu.<br>Datuen kode etikoa onartu eta ezarri.<br>Prestakuntza plana eta komunikazio plana.<br>Datuen katalogoa eta hiztegia sortu.<br>Datuen normalizazioa eta kalitatea bultzatu.<br>Datuekin produktu erabilgarriak sortu (datuak tratatu informazioa atera eta interpretatzeko, modu bisualean). |
| | 3. **Helburua**<br>Herritarrekiko zerbitzua hobetzea eta herritarretan zentraturiko estrategia garatzea. | **1.3.1. Lanlerroa**<br>**Herritarretan zentraturiko estrategia** eta helburuen alineamendua, Gipuzkoako Foru Aldundi osoan. | Hiritarren eskaera, feedbacka, beharrak identifikatu.<br>Kanalak definitu, azterketa egin kanal bakoitzean.<br>Proiektu teknologiko estrategikoak gidatu.<br>Lan proposamenak egin hiritarrei zerbitzua eskaintzeko. |

# LERRO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

| ERRONKA | HELBURU ESTRATEGIKOA | LANLERRO ESTRATEGIKOA | EKINTZAK |
|---|---|---|---|
| **2. ERRONKA: PERTSONEN GARAPENA ETA KULTURA TEKNOLOGIKOAREN AURRERAPENA** | **1. Helburua**<br>Eraldaketa Digitalari aurre egiteko pertsonak eta lantaldea izan eta hau planifikatu. | **2.1.1. Lanlerroa**<br>**Antolaketa egitura definitu Eraldaketa Teknologikoaren alorrean** (Zuzendaritza taldea, etab.), estrategia hori martxan jartzeaz arduratuko dena. | Eraldaketa Digitaleko Plana martxan jartzeaz arduratuko den lantaldearen profilen azterketa.<br>Beharren azkerteta eta garapena: hard eta soft.<br>Postu, funtzio eta rolen definizioa. |
| | | **2.1.2. Lanlerroa**<br>**Talentuaren Plangintza Estrategikoa.** Digitalizazioaren arlo bakoitzean beharko diren profilen definizioa. | Plangintza Estrategikoaren proiektuan definititutako akzioak, proiektuak martxan jartzeko lantaldeak behar dituen ezagupen eta gaitasunen definizioa 5 urte.<br>Sail horietan egongo diren pertsonen zerrenda. Irteerak.<br>Egongo diren pertsonen prestakuntza beharra.<br>Perfil berrien definizioa. |
| | **2. Helburua**<br>Pertsonen eta Herritarren trebakuntza eta sentsibilizazioa. Eraldaketa Teknologikoari aurre egiteko lurraldea sortu. | **2.2.1. Lanlerroa**<br>**Formakuntza eta sentsibilizazioa egitea t**eknologia desberdinen inguruan eta teknologia bakoitzarekin lortu nahi den helburuaren inguruan. | 1. Prestakuntza (pertsonen kudeaketa).<br>Prestakuntza-pildorak teknologia bakoitzeko.<br>Ikastaroak presentzialak eta on-line.<br>Workshopak eta praktika onak elkarbanatzea.<br>2. Sentsibilizazio Plana kanporaka nahiz barruraka (Eraldaketa Zerbitzua). |
| | | **2.2.2**<br>**Lanpostu digitala garatu.** | Lanpostu digitalaren garapen plangintza zehaztea.<br>Plangintza aurrera eramatea. |
| | 3. **Helburua**<br>Elkarlanerako kultura garatu, erakundean teknologiaren erabilera barneratzeko eta aprobetxatzeko. | **2.3.1. Lanlerroa**<br>**Komunikaziorako eta Elkarlanerako tresna korporatiboak definitu eta hedatu,** bai barruan bai kanpora begira erabiltzeko. Elkarlanerako tresna zentralizatuak eta bateratuak. | Erakunde guztian hedatu Office 365 erabilera.<br>Beste on-line tresnei buruzko prestakuntza. |

# LERRO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

| ERRONKA | HELBURU ESTRATEGIKOA | LANLERRO ESTRATEGIKOA | EKINTZAK |
|---|---|---|---|
| **3. ERRONKA: TEKNOLOGIA OPTIMOEN AUKERAKETA ETA EZARPENA PROZESUEN OPTIMIZAZIO ETA HERRITARRENTZAKO ZERBITZUEN HOBEKUNTZARAKO** | **1. Helburua**<br>GFAren prozesuetan ahalmen teknologikoa handitu. | **3.1.1. Lanlerroa**<br>Azpiegitura digitala hobetu. | Big Data Plataformaren definizioa eta dimentsionamendua.<br>Garatzen ari diren POCen azterketa eta GFAren azpiegituran estandarizatzea. |
| | | **3.1.2. Lanlerroa**<br>**Adimen Artifizialaren eta Machine Learning-a**ren aplikazio korporatiboak identifikatu eta garatu. | Martxan dagoeneko:<br>- Ogasun arloan POC martxan.<br>- Estandarizazioaren plangintza.<br>- Beste arlo eta proiektuetara zabaltzeko plana.<br>- Prozesu osoaren garapena eta analisia. |
| | | **3.1.3. Lanlerroa**<br>**Analitika Aurreratua / Data Analytics.**<br>Datuen tratamenduaren garapena. | Datuen Behatokiak garatzea.<br>Proiektu zehatzen garapena eta segimendua.<br>Proiektu berrien sorkuntza. |
| | **2. Helburua**<br>Balio erantsiko eta herritarrengan zentratutako zerbitzuak eskaini. | **3.2.1. Lanlerroa**<br>**Zerbitzu eta tramite digitalen hobekuntza: p**ertsonalizazioa, sinplifikazioa eta automatizazioa eta proaktibitatea. | Aplikazio korporatiboak hobetzea (simpleagoak eta bisualagoak).<br>Erabilgarritasun tailerrak herritarrekin.<br>Elkarreragingarritasuna garatu eta GFAn barneratu (NISAE).<br>Estandarizazioa eta normalizazioa aplikazio ezberdinetan (diru laguntzak adibidez).<br>Teknologia barne erabilgarritasunerako eta partaidetza prozesuetarako. |
| | | **3.2.2. Lanlerroa**<br>Mobilitatea bultzatu: aplikazio mugikorrak, mugikorrerako doikuntza, etab. | Aplikazio korporatiboak eta formulario elektronikoak mugikorrerako doitu.<br>Garatutako aplikazioak eta hauen erabilpen maila aztertzea. APP natiboen beharra aztertu Etorkizunean garatuko diren tresnak (APP edo web) mugikorrerako doitzearen beharra aztertu. |
| | 3. **Helburua**<br>Barne prozesuak digitalizatu eta optimizatu teknologiari esker. | **3.3.1. Lanlerroa**<br>**Oinarrizko barne prozesu eta tramiteen digitalizazioa.** Espediente elektronikoa. 0 paper. | 3 arlo nagusietan:<br>Ogasuna.<br>Gizarte Politika.<br>Diru-laguntzen kudeaketa. |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

Lerro estrategikoak aurrera eramateko disziplina anitzeko lantaldeak sortuko ditugu, arlo ezberdinetan lan egingo dutenak eta definitu diren ekintzak aurrera eramango dituztenak. Ekintzak aurrera eramateko arduradunak identifikatuko ditugu eta beharrezko baliabideak jarriko ditugu.

Ondorengo orrietan lanlerroen eta ekintzen zehaztapena aurkezten da:

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| LANLERROA: 1.1.1. | Estrategia globala martxan jarri, ikuspuntu estrategiko batekin. | | TALDEA | - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua<br>- Zuzendaritza lantaldea<br>- Lantalde teknikoa | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **0. AURRE-PLANGINTZA** | **HELBURUAK** | **AURREKONTUA** | **LEHENTASUNA** | **ADIERAZLEA/K** | **ARDURADUNA** | **1º URTEA** | **2º URTEA** | **3º URTEA** | **4º URTEA** | **5º URTEA** |
| **Plana onartu. Planaren Gobernantza eredua definitu.** | | Barne gastua | Altua | Planaren Gobernantza Eredua definitu da.<br>Printzpioen definizioa.<br>Planaren onarpena. | Eraldaketa Digitaleko Planaren garapen lantaldea | **Urria 2021** | | | | |
| **1. EKINTZEN PLANGINTZA** | **HELBURUAK** | **AURREKONTUA** | **LEHENTASUNA** | **ADIERAZLEA/K** | **ARDURADUNA** | **1º URTEA** | **2º URTEA** | **3º URTEA** | **4º URTEA** | **5º URTEA** |
| **Zuzendaritza taldea sortu.** | Planaren definizioan egon diren pertsonekin eta departamentuetako ordezkariekin taldea sortu, erabakiak hartu eta eztabaidatzeko batzordea izango dena. | Barne gastua | Altua | Batzordea osatuta eta komunikatuta izatea pertsonen %100ari. | Haritz Ugarte | **100%** | | | | |
| **Lantalde teknikoa sortu** | Ekintzak martxan jartzeaz eta koordinatzeaz arduratuko diren lantaldeak sortu. | Barne gastua | Altua | Batzordea osatuta eta komunikatuta izatea pertsonen %100ari. | Haritz Ugarte | **100%** | | | | |
| **Jarraipenerako mekanismoak ezarri: Aginte Koadro Integrala.** | Jarraipena egiteko tresna prestatu eta hau kudeatzen hasi. | Barne gastua | Altua | Urtero txosten bat eratu. Planaren egoera, egindako akzioak, falta direnak… | Zuzentaritza taldea + Lantalde teknikoa | **100%** | **x** | **x** | **x** | **x** |
| **Jarraipen bileren plangintza egin.** | Jarraipen bilerak sistematizatu eta egutegian izan. | Barne gastua | Altua | Zuzendaritza taldea sehileko bilerak. (2 gutxienez).<br>Lantalde teknikoak hiruhilero bilerak. (4 gutxienez). | Zuzendaritza taldea + Lantalde teknikoa | **100%** | **x** | **x** | **x** | **x** |
| **Barne komunikazioa definitu.** | Barne komunikazioa. | Barne gastua | Ertaina | DABn aurkeztea.<br>Beste departamentuetan aurkeztea.<br>Mezuak definitu dira.<br>Kanalak definitu dira. | Zuzendaritza taldea | **100%** | | | | |
| **Kanpo komunikazioa definitu.** | Kanpo komunikazioa. | Barne gastua | Baxua | Komunikazioaren mezuak, esloganak eta euskarriak definitu dira. | Zuzendaritza taldea + Estrategia digitala | **100%** | | | | |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| LANLERROA: 1.2.1. | **Elkarlanaren kudeaketa. Estrategia Departamentala eta estrategia Korporatiboa uztartzea. Departamentu desberdinen arteko lerrokatzea.** | TALDEA | Eraldaketa Digitaleko lantalde interdepartamentala |
|---|---|---|---|

| EKINTZAK | HELBURUAK | AURREKONTUA | LEHENTASUNA | ADIERAZLEA/K | ARDURADUNA | 1º URTEA | 2º URTEA | 3º URTEA | 4º URTEA | 5º URTEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Helburuak definitu: bost urteko Eraldaketa Digitaleko Plana Departamentuekin elkarlanean.** | Identifikatu zeintzuk diren estrategikoak, espezifikoak edo zeharkakoak. | Barne gastua | Altua | Bost urteko digitalizazio planak Departamentuka. | Eraldaketa Digitaleko Lantalde Interdepartamentala | **100%** | | | | |
| **Lehentasunak eta irizpideak definitu.** | Proiektuen aukeraketa eta lehentasuna definitu. | Barne gastua | Altua | Irizpideak definitu. | Eraldaketa Digitaleko Lantalde Interdepartamentala | **100%** | | | | |
| **Identifikatu urtero Estrategia honetan eta Departamentu bakoitzean hurrengo urterako aurreikusita dauden proiektuak.** | Urte bukaeran hurrengo urterako proiektuen berrikusketa egitea. Ajusteak egin, behar espezifikoagoak identifikatu. Eraginkorragoak izan, sinergiak bilatu. | Barne gastua | Altua | Zenbat proiektu identifikatu diren. | Eraldaketa Digitaleko Lantalde Interdepartamentala | **100%** | x | x | x | x |
| **Jarraipena Departamentu bakoitzeko: proiektuak eta adierazleak definitu eta hauen jarraipena egin.** | Proiektu bakoitzeko adierazleak definitu (batzuk plan orokorrekoak, beste batzuk Departamentuka) eta jarraipen bileretan berrikusi, desbideraketak aztertu eta egokitzapenak egin. | Barne gastua | Ertaina | Zenbat hobekuntza planteatu diren.<br>Zenbat hobekuntza ezarri diren.<br>Zenbat pertsonek hartu duten parte proiektuetan.<br>Zer inbertsio egin diren.<br>Zenbat berrikuntza proiektu planteatu diren. | Eraldaketa Digitaleko Lantalde Interdepartamentala | **100%** | x | x | x | x |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| | | | |
|---|---|---|---|
| LANLERROA: 1.2.2. | **Datuen Gobernantzarako Estrategia definitu.** | TALDEA | - Datuen Bulegoa<br>- Eraldaketa Digitaleko Lantalde Interdepartamentala. |

| EKINTZAK | HELBURUAK | AURREKONTUA | LEHENTASUNA | ADIERAZLEA/K | ARDURADUNA | 1º URTEA | 2º URTEA | 3º URTEA | 4º URTEA | 5º URTEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Datuen Bulegoa sortu.** | Datuen Bulegoa osatuko duten zerbitzuak eta pertsonak identifikatu eta izendatu. | Barne gastua | Altua | Datuen bulegoa sortuta izatea (espazio, pertsona, etab) | Haritz Ugarte + Ikuspuntu juridikoa duen pertsona aditua (datuak) | **100%** | | | | |
| **Datuen Kudeaketa arautu.** | Datuen erabilera definitu eta arautuko duen dokumentua onartu:<br>- Datuaren gobernantza eredua definitu.<br>- GFAz kanpotik lortutako datuak eta hauen jabegoa eta esplotazioa pleguetan arautu. | Barne gastua | Altua | Datuen gobernantza arautzen duen testua onartua izatea | Datuen Bulegoa | **100%** | | | | |
| **Datuen kode etikoa onartu eta ezarri.** | Foru Aldundiaren datuen kudeaketari buruzko kode etikoa definitu (besteak beste, datuen gardentasuna, datuen erabilera egokia, algoritmoen gardentasuna, etab. arautuz). Kodea herritarrekin elkarlanean sortuko da (Partaidetza Planean txertatuz). | Barne gastua | Ertaina | Datuen kode etikoaren definizioa onarpena eta komunikazioa | Datuen Bulegoa | | **100%** | | | |
| **Datuen katalogoa eta hiztegia sortu. Datuen normalizazioa eta kalitatea bultzatu.** | Datuen identifikazioa eta datuen hizkuntzaren normalizazioa ezarri (datuak / metadatuak). Bi departamentuetako pilotuekin hasi eta garatzen eta hedatzen joan. | Kanpo eta barne gastua | Altua, baina denboran zehar garatuz joan | Kiroletako datuen katalogoa eginda.<br>Administrazio Elektronikoko aplikazio korporatiboen datuen katalogoa.<br>Departamentuetara guztietan zabaltzea (gutxienez proiektu bat departamentu bakoitzean) | Datuen Bulegoa | **2 proiektu piloto** | **25%** | **50%** | **75%** | **100%** |
| **Datuekin produktu erabilgarriak garatu.** | Datuak tratatu informazio praktikoa ateratzeko eta datuak modu bisualean errazago interpretatzeko. Beharrak identifikatu eta horren arabera produktuak garatu: Bisualizazioak, txostenak, kontsultak, aginte koadroak, etab. Eskaera berriak bultzatu.. | Barne gastua | Ertaina | Beharrak identifikatu. (zenbat)<br>Bisualizazioa edo datuen tratamendua definitu. Soluzioa. | Datuen Bulegoa | | | | | |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **LANLERROA: 1.3.1** | **Eraldaketa digitala Herritarretan zentraturiko zerbitzuen garapenerako. Herritarrak erdigunean.** | **TALDEA** | - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua / Kudeaketa Aurreratuko Atala<br>- Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza<br>- Etorkizuna Eraikiz Zerbitzua<br>- IZFE |

| EKINTZAK | HELBURUAK | AURREKONTUA | LEHENTASUNA | ADIERAZLEA/K | ARDURADUNA | 1º URTEA | 2º URTEA | 3º URTEA | 4º URTEA | 5º URTEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Foru Aldundiak eskaintzen dituen tramite eta zerbitzuen zerrenda zehatza egin (oinarrizko datu basea).** | GFAk eskaintzen dituen tramite eta zerbitzu guztiak puntu berdin batean eskuragarri izan.<br>Informazio hau eguneratua izan eta eskuragarri barne mailan.<br>Katalogo eguneratua izan.<br>Datuak eta informazioa Sistematizatu (irizpideak sortu). | Kanpo eta barne gastua | Altua | Aldundiaren zerbitzu/tramiteen kopurua.<br>Gaur egun egoitzan SIAko 484 tramite daude ikusgai (2021 uztailak 28) | Edurne Sánchez | x | x | | | |
| **Zerbitzu eta tramiteak kanal ezberdinetan lerrokatu.** | Zerbitzu eta tramiteei buruzko eduki guztiak kanal ezberdinetan lerrokatu (gipuzkoa.eus, egoitza, GipuzkoAtaria...) eta herritarren ikuspuntutik berdiseinatu (informazioa bistaratzeko interfazeak).<br>- Herritarrei bidea erraztu eta unifikatu.<br>- Informazioa berdina eskura jarri leku guztietan.<br>- Barne kudeaketa erraztu. | Kanpo eta barne gastua | Altua | Eraldatutako euskarrien kopurua (2021 bukaeran gipuzkoa.eus, 2022an zehar egoitza eta 2023rako GipuzkoAtaria) | Gorka Sagarna<br>Esther Larrañaga | x | x | | | |
| **Tramite eta zerbitzuen inguruan herritarren beharrak eta iritziak jasotzeko sistematika definitu eta abian jarri.** | Prozesu sistematizatua izan.<br>Prozesua abian jarri. | Barne gastua | Altua | Herritarren esperientzia neurtzeko prozesua definituta- 2022 irailerako | Juanjo Nebreda | **irizpideak** | x | x | x | x |
| **Herritarrei online izapideak egiteko laguntza zerbitzua garatu eta hobetu** | Herritarren beharrak eta eskura dauden baliabideak aztertu.<br>Laguntza zerbitzua diseinatu eta abian jarri. | Barne gastua | Altua | Laguntza zerbitzua ezarrita<br>Laguntza jaso duten pertsonen kopurua | Juanjo Nebreda | x | x | | | |
| **Arreta emateko erabiliko diren kanal ezberdinak definitu, kanal berriak erabiliz.** | Arretarako online kanalen bideragarritasun azterketa egin.<br>Herritar bakoitzari eta zerbitzu bakoitzari dagokion kanala erabili, irisgarritasun haundiagoa izateko<br>Arreta eta tramitazioa garatu eta hobetu. | Kanpo eta barne gastua | Ertaina | Arreta egiteko erabiltzen diren kanal kopurua | Haritz Ugarte | x | x | x | | |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| LANLERROA: 2.1.1 | Antolaketa lantaldeen profilak definitu Eraldaketa Teknologikoaren alorrean (Zuzendaritza taldea eta lantalde teknikoa.). Estrategia hori martxan jartzeaz arduratuko direnenak. | TALDEA | - Funtzio Publikoko Zerbitzua<br>- Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua<br>- IZFE |
|---|---|---|---|

| EKINTZEN PLANGINTZA | HELBURUAK | AURREKONTUA | LEHENTASUNA | ADIERAZLEAK | ARDURADUNA | 1º URTEA | 2º URTEA | 3º URTEA | 4º URTEA | 5º URTEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Eraldaketa Digitaleko Plana martxan jartzeaz arduratuko den lantaldearen Postu, funtzio eta rolen definizioa egin.** | Taldekide bakoitzaren helburua finkatu. | Barne gastua | Altua | Funtzioen definizioen onarpena (zenbat) | Haritz Ugarte | x | | | | |
| **Eraldaketa Digitaleko Plana martxan jartzeaz arduratuko den lantaldearen profilen azterketa egin.** | Erakundean dagoena aztertu eta beharrak definitu.<br>Beharrak identifikatu eta formakuntza definitu.<br>Kanpoko profilen beharra identifikatu.<br>Lantalde teknikoa: zalantza teknologikoen ezagutza izan. | Barne gastua | Altua | Profilen definizioen onarpena (zenbat) | Maite Barruetabeña / Aitor Leturiondo | x | | | | |
| **Beharrak/ gabeziak identifikaturik izanda, formakuntza definitu.** | Prestakuntza egokia identifikatu. | Kanpo eta barne gastua | Altua | Formakuntza ekintzen plana | Maite Barruetabeña / Aitor Leturiondo | x | | | | |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| LANLERROA: 2.1.2 | **Talentuaren Plangintza Estrategikoa. Digitalizazioaren arlo bakoitzean beharko ditugun profilen definizioa.** | TALDEA | - Funtzio Publikoko Zerbitzua<br>- Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua<br>- IZFE |
|---|---|---|---|

| EKINTZEN PLANGINTZA | HELBURUAK | AURREKONTUA | LEHENTASUNA | ADIERAZLEAK | ARDURADUNA | 1º URTEA | 2º URTEA | 3º URTEA | 4º URTEA | 5º URTEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Pertsonalaren gaitasun digitalaren beharrak definitu.** | GFAko langileen gaitasun digital minimoak eta desiragarriak identifikatu.<br>Prestakuntza beharrak definitu (2.2.1 lanlerroa). | Barne gastua | Altua | Beharren identifikazioa eginda | Haritz Ugarte | x | | | | |
| **Etorkizuneko lan postuen (OPE) egitura eta konpetentzia digitalen beharra definitu.** | GFA pertsona berrien gutxieneko gaitasunak bermatu. | Barne gastua | Ertaina | | Maite Barruetabeña / Aitor Leturiondo | | x | x | | |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| LANLERROA: 2.2.1. | **Prestakuntza eta sentsibilizazioa. Teknologia desberdinen inguruan eta teknologia bakoitzarekin lortu nahi den helburuaren inguruko ezagupena. Erabilera eta aplikagarritasunaren inguruan.** | | TALDEA | - Funtzio Publikoko Zerbitzua<br>- Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua<br>- IZFE | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZEN PLANGINTZA | HELBURUAK | AURREKONTUA | LEHENTASUNA | ADIERAZLEAK | ARDURADUNA | 1º URTEA | 2º URTEA | 3º URTEA | 4º URTEA | 5º URTEA |
| **Kolektibo bakoitzaren formakuntza beharren Diagnostikoa egin.** | Foru Aldundiko langileen kolektibo ezberdinak definitu (prozesu, departamentu eta kapazitazioaren arabera).<br>Kolektibo bakoitzerako prestakuntza zehatza eta aproposa definitu.<br>Ekipamendu digitalen (HW) beharra identifikatu eta beharrezko aurrekontua definitu. | Barne gastua | Altua | Taldeak definiturik | Haritz Ugarte | x | | | | |
| **Barne komunikazioa definitu prestakuntzarako.** | Digitalizazioaren inguruan finkaturiko estrategia zabaldu.<br>Prozesuen aldaketa definitu eta komunikatu. Onurak.<br>Talde ezberdinei formakuntzaren inguruan informazioa eman. | Barne gastua | Altua | Eraldaketa Digitaleko Plana zabaldu kolektibo guztietan<br>Formakuntza plana zabaldu kolektibo guztietan | Haritz Ugarte<br>Aitor Leturiondo | x | x | x | x | x |
| **Prestakuntza Plana diseinatu eta kudeatu.** | Prestakuntza ekintzak eta datak finkatu.<br>kolektibo bakoitzerako formakunta aproposa finkatu, diagnostikoaren arabera.<br>Ikastaroak on-line planifikatu lanpostu bakoitzerako.<br>Prestakuntza aurrera eraman. | Barne gastua | Altua | Prestakuntza plana definitua<br>Prestakuntzaren diseinua<br>Eskainitako prestakuntza kopurua | Aitor Leturiondo<br>Alejandra Echave | **helburuak eta datak** | x | x | x | x |
| **Tresna bakoitzaren material didaktikoak sortu.** | Pertsonen transizioa eta presakuntza azkartu eta hobetu.<br>Material interaktiboa sortu (eskuliburuak eta bideotutorialak). | Barne gastua | Altua | Eskuliburuak eginak | Haritz Ugarte<br>Sistemen Atala | x | x | x | x | x |
| **Sentsibilizazio Plana finkatu.** | Prestakuntzaz aparte, digitalizazioaren arloan sentsibilizatzeko ekintzak definitu.<br>Hiritarrak eta langileak kontzientziatzea eraldaketa digitalak duen garrantziaz, lehiakortasuna hobetzeko bitarteko den aldetik.:<br>1. Barne sentsibilizazio plana.<br>2. Kanpo sentsibilizazio plana. | Barne gastua | Ertaina | Sentsibilizazio plana definitua<br>Sentsibilizazio akzio kopurua | Haritz ugarte | x | x | x | x | x |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| LANLERROA: 2.2.2. | **Lanpostu digitala garatu.** | TALDEA | - IZFE<br>- Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua |
|---|---|---|---|

| EKINTZEN PLANGINTZA | HELBURUAK | AURREKONTUA | LEHENTASUNA | ADIERAZLEAK | ARDURADUNA | 1º URTEA | 2º URTEA | 3º URTEA | 4º URTEA | 5º URTEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lanpostu digitalaren garapeneko plangintza definitu.** | Hurrengo urteetan langileen lanpostuko tresna teknologikoen eraldaketa antolatu. | Kanpo eta barne gastua | Altua | Plangintza definituta etra onartuta | IZFE | X | x | | | |
| **Plangintza aurrera eraman.** | Plangintzan ezarritako ezarpen faseak aurrera eraman. | Kanpo eta barne gastua | Altua | Plangintzaren gauzatze maila % | IZFE | | x | x | x | x |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| LANLERROA: 2.3.1. | **Komunikaziorako eta Elkarlanerako tresna korporatiboak definitu eta hedatu, bai barruan bai kanpora begira erabiltzeko. Elkarlanerako tresna zentralizatuak eta bateratuak.** | | TALDEA | - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua<br>- IZFE | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EKINTZEN PLANGINTZA | HELBURUAK | AURREKONTUA | LEHENTASUNA | ADIERAZLEAK | ARDURADUNA | 1º URTEA | 2º URTEA | 3º URTEA | 4º URTEA | 5º URTEA |
| **Erakunde guztian Office 365 tresnen erabilera hedatu.** | Departamentu bakoitzeko lizentziamendu beharrak identifikatu.<br>Lehenetsi eta lizentziak esleitu.<br>Ezarpeneko plangintza egin.<br>Urtero beharren azterketa egin. | Barne gastua | Altua | Aldundiko 365 beharrak identifikatuta<br>5. urtean 365 erabilera %100an hedatuta<br>(365 erabili beharko duten guztien artean)<br>Eman diren lizentzia kopurua | Haritz Ugarte | **(50%) Beharren identifikazioa** | **(75%) Hedapena** | **100% Guztizko inplantazioa** | x | x |
| **Sharepoint erabilera irizpideak definitu eta komunikatu.** | Definitu Foru Aldundiko zer dokumentu gordeko diren Sharepoint bitartez eta zein modutan. | Barne gastua | Altua | Erabilera irizpideak definituta<br>Dekalogoa eginda<br>Komunikatuta | Haritz Ugarte | **100%** | | | | |
| **Office 365 erabileraren inguruko barne formakuntza.** | Prestakuntza plana definitu.<br>Informatu prestakuntza plan horren inguruan.<br>Online prestakuntza eskaini tresnen erabileraren inguruan.<br>Kapazitazioa eta sentsibilizazioa 365 inguruan.<br>Prestakuntza eskaini uneoro 24/7 (bideoak, tutorialak, 365 tresnen katalogoa) kudeaketa tresnen inguruan: Sharepoint, ToDo, Microsoft Planner... | Kanpo eta barne gastua | Altua | Formakuntza plana definituta - Itinerarioa<br>Formakuntza eman guztiei<br>Formakuntza jarraia-eguneraketa | 2.2.1. lerroko lantaldea | **(25%) Planifikatua** | **(75%) Prestakuntza eman** | **100% Presntakuntza eman** | x | x |
| **Beste on-line tresnen hautaketa.** | Aztertu zer falta zaion 365 paketeari eta behar horiek astetzeko bestelako online tresnak bilatu (Miro, Mural, etab.) eta Foru Aldundiko online lankidetza ereduan gehitu. | Barne gastua | Ertaina | Beste tresnak identifikatuta.<br>Komunikatuta. | Javi Ruiz IZFE | **100% Azterketa** | x | x | x | x |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **LANLERROA: 3.1.1** | **Azpiegitura digitala hobetu.**<br>Gero eta datu gehiago landu eta gordetzeko gai den azpiegitura garatzen joatea. Adibidez, Big data. Datu-bulegoa sortzea eta garatzea, GFAk sortutako datu guztiak gordetzeko datu-biltegia, ondoren sail eta pertsona bakoitzak behar diren datuak ustiatu ahal izateko. Datu komunen gordailu bat sortzea, ondoren ustiatzeko. | **TALDEA** | - IZFE<br>- Datuen bulegoa |

| EKINTZEN PLANGINTZA | HELBURUAK | AURREKONTUA | LEHENTASUNA | ADIERAZLEAK | ARDURADUNA | 2021-09<br>1º URTEA | 2º URTEA | 3º URTEA | 4º URTEA | 5º URTEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Azpiegitura digitalaren dimentsionamendua, eguneratzea eta berrikusketa era sistematikoan egin.** | Urtero azpiegitura digitala era sistematikoan berrikusi eta eguneratu. | Barne gastua | Ertaina | | IZFE | x | x | x | x | x |
| **Laborategi teknologikoa abian jarri.** | Zaintza teknologikoa egin.<br>POC eta pilotoak abian jarri teknologiak testatzeko eta aztertzeko.<br>Estandarizazioa bultzatu. | Kanpo eta barne gastua | Altua | Ez dago helburu zehatzik definituta.<br>Sistematizazioa.<br>X teknologia/proiektu identifikatu (POC)<br>X test probak<br>X estandarizazio | IZFE | x | x | x | x | x |
| **Big Data Plataforma sortu eta erabilera definitu.** | Plataforma abian jarri<br>Plataformaren bidez proiektuan abian jartzeko metodologia eta irizpideak definitu | Kanpo eta barne gastua | Altua | Plataforma sortuta eta martxan | IZFE | | **100%** | | | |
| **Sentsibilizazio eta formakuntza 2.2.1. Lanlerroa.** | | | | | | | | | | |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| | | | |
|---|---|---|---|
| LANLERROA: 3.1.2. | **Adimen Artifizialaren eta Machine Learning-aren aplikazio korporatiboak identifikatu eta garatu.** | TALDEA | AA Batzordea<br>- Estrategia<br>- Ogasuna<br>- Ekonomia/ Berrikuntza<br>- IZFE<br>- Gobernantza / Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua<br>- EHU<br>- Kanpo Aholkularitza |

| EKINTZEN PLANGINTZA | HELBURUAK | AURREKONTUA | LEHENTASUNA | ADIERAZLEAK | ARDURADUNA | 1º URTEA | 2º URTEA | 3º URTEA | 4º URTEA | 5º URTEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **AAren lanketarako markoa garatu.** | AAren lanketa markoa garatu:<br>- Proiektuen metodologia: CRIPS, DM edo bestelakoak (IZFE)<br>- Estandar teknologikoak: arkitektura eta soluzio/aplikazioak (IZFE)<br>- Araudia sortzea<br>- Aaren kode etikoa arautzea | Kanpo eta barne gastua | Handia | Metodologia definituta<br>Araudia sortuta<br>Kode etikoa sortuta | Estrategia Zuzendaritza<br>IZFE<br>AA Batzordea<br>Datuen bulegoa | | | | | **100%** |
| **Proiektu berrien azterketa eta plangintza egin.** | Garapen digitalaren egungo egoeraren ebaluazio-matrizearen emaitzak aztertu (3.1.3).<br>- EKK departamentuetan ezartzeko aukeren matrizea bete eta eguneratu.<br>- Egoera aztertu eta proiektu berriak bilatu.<br>- Ebalua, lehenetsi, eta proiektu berriak planifikatu. | Kanpo eta barne gastua | Handia | Aztertutako Departamentuen %<br>Lehenetsitako eta planifikatutako proiektuen kopurua | Estrategia Zuzendaritza<br>AA Batzordea | **100%** | | | | |
| **Proiektu berriak garatu (POC, Pilotuak,..).** | Identifikatzen doazen proiektuak abian jarri.<br>Lantaldea konfiguratu eta helburua zehaztu.<br>Proiektu berriak garatu (datuak prestatu- azpiegitura prestatu - ereduak aukeratu eta probatu)<br>Emaitzak ebaluatu eta zabaltze-industrializazio aukerak aztertu<br>Jarraipena eta zabalpena (AA Batzordea eta 2.2.1) | Kanpo eta barne gastua | Handia | Garatutako proiektu pilotu kopurua (5 urtetan X proiektu)<br>Identifikatutako proiektu berrien kopurua | Estrategia Zuzendaritza<br>IZFE<br>AA Batzordea<br>Datuen bulegoa | **urtero X prototipo** | | | | **100%** |
| **Sentsibilizazio eta formakuntza 2.2.1. Lanlerroa.** | Barne- eta kanpo- zabalkundea | Barne gastua | | Praktika on eta irakaspenen kopurua | AA Batzordea | **50%** | **100%** | **X** | **X** | **X** |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| | | | |
|---|---|---|---|
| LANLERROA: 3.1.3. | **Analitika Aurreratua: Datuen tratamendu adimentsua garatzea.** | TALDEA | AA Batzordea<br>- Estrategia<br>- Ogasuna<br>- Ekonomia/ Berrikuntza<br>- IZFE<br>- Gobernantza/ Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua<br>- EHU<br>- Kanpo Aholkularitza |

| EKINTZEN PLANGINTZA | HELBURUAK | AURREKONTUA | LEHENTASUNA | ADIERAZLEAK | ARDURADUNA | 1º URTEA | 2º URTEA | 3º URTEA | 4º URTEA | 5º URTEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Proiektuak garatu eta hauen jarraipena egin.** | SIT proiektua - Turismoa (3.1.3+3.1.2) | Kanpo gastua | Handia | Burutzea<br>Erabilgarritasuna | Estrategia Zuzendaritza<br>Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua<br>IZFE | 100% | | | | 100% |
| | SIK proiektua -Kiroletako Big Data informazio sistema (3.1.3+3.1.2) | Kanpo gastua | Handia | Burutzea<br>Erabilgarritasuna | | 50% | 100% | | | |
| | SIE proiektua-Sustapen ekonomikorako informazio sisitema (3.1.3+3.1.2) | Kanpo gastua | Handia | Burutzea<br>Erabilgarritasuna | | 50% | 100% | | | |
| | Adinberri Behatokia | Kanpo gastua | Handia | Burutzea<br>Erabilgarritasuna | | | | | | 100% |
| | Enpleguaren Behatokia | Kanpo gastua | Handia | Burutzea<br>Erabilgarritasuna | | | | | | 100% |
| **Datuen egungo egoera aztertu.** | IU (Informazio unitatea) bakoitzeko informazioaren egungo egoeraren azterketa:<br>- Garapen digitalaren egungo egoeraren ebaluazio-matrizea definitzea<br>- IU bakoitzaren egoera aztertzea, gaur egun sortutako informazioari dagokionez:<br>* Zer informazio sortzen da/sor daiteke dagoeneko martxan dauden prozesuetatik abiatuta: txostenak, panoramikak, memoriak, laguntzen dekretuak …<br>* Interesa, egokitasuna eta hedapena baloratzea (barne-kanpo) | Kanpo eta barne gastua | Altua | Garapen digitalaren egungo egoeraren ebaluazio-matrizea definituta | Estrategia Zuzendaritza<br>Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua<br>IZFE | 100% | | | | |
| **Departamentuen informazio beharren azterketa egin.** | -Analisia egiteko aldagaien definizioa (IZFE)<br>-Informazio berriaren beharrak identifikatzea<br>-Informazio berriaren sailkapena: barnekoa/kanpokoa, norberarena/besterena, egituratua/egituratu gabea, lehentasun-maila, eskuragarritasuna...<br>- Ustiapeneko eta barne- eta kanpo-bistaratzeko beharrak aztertzea.<br>- Funtsezko profilak identifikatzea.<br>-Informazio-mapak egitea sailen arabera<br>-Lehenestea eta proiektu-plana. | Kanpo eta barne gastua | Altua | Aztertutako departamentuen %<br>Lehenetsitako eta planifikatutako proiektu kopurua | Estrategia Zuzendaritza<br>Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua<br>IZFE | x | x | x | x | 100% |
| **Proiektu berriak garatu.** | Gordailuak eraikitzea eta datuak hartzeko eta ustiatzeko zerbitzuak garatzea.<br>- Ustiatzeko eta bistaratzeko tresnak ezartzea.<br>- Erabiltzaileentzako prestakuntza.<br>- Hobekuntzak garatzea. | Kanpo eta barne gastua | Altua | Garatutako proiektu kopurua<br>Identifikatutako proiektu berrien kopurua | Estrategia Zuzendaritza<br>Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua<br>IZFE | x | x | x | x | 100% |
| **Sentsibilizazio eta formakuntza 2.2.1. Lanlerroa.** | Barne- eta kanpo- zabalkundea | Barne gastua | | Praktika on eta irakaspenen kopurua | AA batzordea | 50% | 100% | X | X | X |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| | | | |
|---|---|---|---|
| LANLERROA: 3.2.1. | **Zerbitzu eta tramite digitalen hobekuntza: pertsonalizazioa, sinplifikazioa eta automatizazioa eta proaktibitatea.**<br><br>Zerbitzu eta izapide digitalak hobetzea: bezero-segmentuen araberako pertsonalizazioa, behar eta berezitasun zehatzak. Teknologiak tratua eta zerbitzua askoz gehiago pertsonalizatzeko aukera ematea. Herritarren prozesuak eta izapideak sinplifikatzea eta automatizatzea. Gipuzkoako Foru Aldundiaren proaktibitatea sustatzea, herritarren beharrak identifikatu, lehenetsi eta horiei erantzuteko. | TALDEA | - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua / Sistemen Atala<br>- Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza<br>- IZFE<br>- Partaidetza<br>- Gizarte Politika - Plangintza |

| EKINTZEN PLANGINTZA | HELBURUAK | AURREKONTUA | LEHENTASUNA | ADIERAZLEAK | ARDURADUNA | 1º URTEA | 2º URTEA | 3º URTEA | 4º URTEA | 5º URTEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Gaur egun digitalki egin ez daitezken tramiteak digitalizatu.** | - Digitalki egin daitezken tramiteak identifikatu (gaur egun aurrez-aurre egin beharrekoak) eta zerrenda egin<br>- Tramiteak lehenetsi<br>- Tramiteak digitalizatu | Barne gastua | Altua | Urtean digitalizaturiko tramite kopurua<br>Tramite digital berrien erabilera (fisikoa Vs. digitala).% | Juan Carlos Garciarena | x | x | x | x | x |
| **Aplikazio korporatiboak hobetu, sinpleagoak eta erabilerrazagoak izan daitezen.** | - Aplikazio korporatibo guztiak Aldundiaren eredu/diseino berrira pasa<br>- Herritarren karpetak garatu (karpeta orokorra eta sektorialak)<br>- Aplikazio korporatiboen estandarizazioa eta normalizazioa<br>- Barrura begirako aplikazioak hobetzea eta digitalizatzea (3.3.1 lanlerroan garatua dago) | Barne gastua | Altua | Diseinu berriarekin dauden aplikazio korporatiboen portzentaia<br>Barnera begirako tramiteen digitalizazio maila (%) | Juan Carlos Garciarena | x | x | x | x | x |
| **Tramite digitalen garapenean eta hobekuntzan herritarren ikuspegia txertatu.** | - Martxan dauden aplikazio eta tresnen inguruan erabilgarritasun taillerrak egin herritarrekin<br>- Tramite digital berrien garapenean, herritarrekin kontrastatu martxan jarri aurretik (espezifikazioa eta erabilgarritasuna) | Kanpo eta barne gastua | ertaina | Egin diren ekintzen kopurua (tailerrak)<br>Tailerren eraginkortasun maila<br>Erabiltzaileek online tramiteen inguruko asebetezea | Haritz Ugarte | x | x | x | x | x |
| **Herritarrek online identifikazio sistemak erabiltzeko (BAKQ, Izenpe, etab.) difusioa eta promozioa egin.** | Herritarren inplikazioa lortzeko komunikazioa landu<br>Online tramitaziorako beharrezko diren datuak derrigorrezko bezala ezarri | Barne gastua | Altua | Emandako BAKQ ziurtagiri kopurua | Haritz Ugarte | x | | | | |
| **Elkarreragingarritasuna garatu eta GFA barneratu.** | GFAn datu-kontsultak ezartzeko aukerak identifikatu<br>Identifikatutako datu-trukaketak NISAE bitartez bideratu | Barne gastua | ertaina | Identifikaturiko akzio kopurua<br>NISAE bitartez tramitatzen diren % | Elena Ibañez | x | x | x | | |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| LANLERROA: 3.2.2. | **Mobilitatea bultzatu: aplikazio mugikorrak, mugikorrerako doikuntza, etab.**<br>Mobilitatearen egokitasunari eta erabilerari buruz hausnartzea, garapen eta ezarpen egokirako plan eta partner egokiak definitzea eta mobilitatea modu korporatiboan lantzea Gipuzkoako Foru Aldundian, herritarrei zerbitzu hobea eta hurbiltasun handiagoa eskaintzeko haien mugikorretatik. | TALDEA | - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua / Sistemen Atala<br>- Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza<br>- IZFE |
|---|---|---|---|

| EKINTZEN PLANGINTZA | HELBURUAK | AURREKONTUA | LEHENTASUNA | ADIERAZLEAK | ARDURADUNA | 1º URTEA | 2º URTEA | 3º URTEA | 4º URTEA | 5º URTEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Herritarrei zuzendutako aplikazio korporatiboak eta formulario elektronikoak mugikorrera doitu.** | Identifikatu aplikazio korporatiboak eta formularioak<br>Aplikazioak eta formularioak mugikorrera doitu, era plangintzatuan | Barne gastua | Altua | Aplikazio korporatibo eta formularioak identifikatuta.<br>Mugikorrera doitu diren aplikazio kopurua edo ehunekoa. | IZFE | **50% Identifika zioa eginda** | | **100% mugikorr era doituak** | | |
| **Aplikazio mugikorren erabileraren inguruko hausnarketa egin. Garatu diren aplikazioak identifikatu eta erabiltzen ez diren horien analisia egin, zergatia jakiteko.** | Aplikazio mugikorren zerrenda egin (IOS / Android): identifikatu garatuta dauden eta erabiltzen ez diren aplikazioak<br>Azterketa egin erabileraren inguruan: zeintzuk erabiltzen ari diren, zeintzuk ez eta zergatik.<br>Irizpideak ezarri aplikazio mugikor berriak garatzeko: Aldundiaren aplikazio mugikorrak izan behar diren, nolakoak, zertarako... (Eraldaketa Digitalaren Zuzendaritzari eskatu beharra APP mugikor bat garatu nahi denean)<br>App mugikorren irudi korporatibo manuala edo estilo-gida definitu.<br>App mugikorren eguneraketa egin (irudia, funtzionamendua, etab.) | Barne gastua | Altua | App mugikorren inbentarioa eginda.<br>Erabileraren azterketa eginda.<br>Aztertutako App kopurua.<br>Irizpideak definituta eta komunikatuta.<br>App mugikorren irudi korporatibo manuala eginda (estilo gida)<br>App mugikorren eguneraketa (irudia) | Gorka Sagarna | **50% Identifika zioa eginda** | **100% Erabilerar en azterketa Eguneraketa** | | | |
| **Etorkizunean garatuko diren tresnak aplikazio mugikor izatearen beharra aztertu.** | Departamentuka eta zerbitzuka beharrak identifikatu<br>Etxe osoan beharrak identifikatu | Barne gastua | Altua | Aplikazioen kalitatea neurtzeko adierazleak: erabilera, interakzioa, komentarioak. | Haritz Ugarte | x | x | x | x | **100%** |

# EKINTZEN ZEHAZTAPENA

| LANLERROA: 3.3.1. | Oinarrizko barne prozesu eta tramiteen digitalizazioa. Espediente elektronikoa. 0 paper. | TALDEA | - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua / Sistemen Atala<br>- IZFE<br>- Ogasuna<br>- Gizarte Politika |
|---|---|---|---|

| EKINTZEN PLANGINTZA | HELBURUAK | AURREKONTUA | LEHENTASUNA | ADIERAZLEA/K | ARDURADUNA | 1º URTEA | 2º URTEA | 3º URTEA | 4º URTEA | 5º URTEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Prozedura Administratiboak digitalizatu.** | Digitalizatzeke dauden barne prozedurak identifikatu eta hauek egokitzea, GFAren Administrazio Elektronikoko tresna korporatiboak erabiliz | Barne gastua | Altua | Digitalki abiaraz daitezkeen GFAko tramiteen portzentaia --> %100 (egun %81) | Juan Carlos Garciarena | x | x | x | x | x |
| **Espediente Elektronikoen sustapeneko lantaldea abian jarri.** | Erakunde osoan espediente elektronikoak bultzatuko dituen lantaldea sortzea, Eraldaketako, Artxiboetako eta Departamentuetako kideekin | Barne gastua | Ertaina | Lantaldeak egindako bilera kopurua | Haritz Ugarte | **100%** | | | | |
| **Espediente Elektronikoa ezartzeko proiektuak aurrera eraman:<br>- Dirulaguntzen plataforma korporatiboa.<br>- HAEA/TEAFeko espedienteak.<br>- Gizarte Politika - Extraneteko espedienteak.** | Espediente Elektronikoko proiektu nagusiak aurrera eramateko laguntza ematea eta proiektu berriak identifikatzea departamentuekin elkarlanean | Barne gastua | Altua | Burututako proieku kopurua | Sistemen Atala<br>Ogasuna<br>Gizarte Politika | x | x | x | | |
| **Serie dokumentalak sortzeko irizpideak zehaztu.** | Espediente Elektronikoak sortzeko serie dokumentalak zehazteko orduan jarraitu beharreko irizpideak ezartzea, sinplifikazioa eta koherentzia bultzatzeko | Barne gastua | Altua | --- | Espediente Elektronikoa sustatzeko lantaldea | x | **100%** | | | |
| **Herrritarrek bere espedienteen egoera ezagutzeko moduloa garatu eta ezarri.** | Espediente elektronikoa ezarrita duten tramiteen egoerari buruzko informazioa emateko tresna garatu eta herritarren karpetan ezarri | Barne gastua | Altua | --- | Sistemen Atala<br>IZFE | | | x | **100%** | |

Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzua

2021 urria